

➤ **Idazlanen kopia eta ebaluazio-fitxak eskuratzea**

Idazmeneko azterketa IVAPeko webgunetik deskargatu behar duzu, AZTERNET aplikaziotik:

<https://www.ivap.euskadi.eus/informazioa/zer-da-azternet/z16-a3azter/eu/>

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunetik ere sar zaitezke, “Nire Karpeta” gunetik:  
<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

Eusko Jaurlaritzako langilea bazara, sarbidea duzu txartel korporatiboa edo XLNETetS erabiliz. Gainerako erakundeetako langilea bazara, aplikazioan sartu ahal izateko elektronikoki identifikatu behar zara, NAN digitalaren bidez edo IZENPE-ren identifikazio digital baten bidez (B@K, adibidez). EAeko administrazioekin izapide elektronikoak izateko onartzen diren identifikazio txartelen zerrenda duzu hemen:

<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

Behin AZTERNETen sartuz gero, egin klik ESKABIDEAK aukeran. Atal horren barruan *Eskabideen jarraipena* klikatu behar duzu eta dagokion deialdian klikatu (2023-01-23). Hori egin eta gero, zure eskabidearen datuak agertuko zaizkizu eta pestaña baten emaitzak ikusiko dituzu. Klikatu hor eta azterketa deskargatu eta inprimatu ahal izango duzu. Zalantzarik baduzu, helbide honetara jo dezakezu: [j-uskola@ivap.eus](mailto:j-uskola@ivap.eus)